

ESCALA IEXPAC

Paziente Kronikoaren Esperientzia Ebaluatzeko Tresna



IEXPAC ©2015

Institut Català de la Salut

bioef

perrikuntza • ikerketa • osasuna eskola fundazioa
Fundación vasca de innovación e investigación sanitarias

MSD

UNIVERSITAT Miguel Hernández

JARRAIBIDEAK

Erantzuteko, irakurri galderak agertzen diren ordenan eta hautatu zure iritzia hobeto islatzen duen aukera. Ez dago erantzun zuzenik edo okerririk; zeure esperientzia azaltzea da garrantzitsua.

Galdera guztiak azken 6 hilabetei buruzkoak dira. Galderetan zu zaintzen zaituzten profesionalak aipatzen dira beti; erantzuteko, hortaz, pentsatu zure osasun-zentroko familia-medikuarengan edo erizainarengan, ospitaleko mediku edo erizainengan, botikariengan, kasuen erizain-kudeatzailearengan, psikologoarengan edo fisioterapeutarengan, eta osasun-zentroko, udaletxeko nahiz gizarte-zerbitzuetako gizarte-langilearengan. Profesionalak aipatzen ditugunaldi bakoitzean, pentsazazu eurengan.

Markatu X batekin zure balorazio pertsonala ondoen islatzen duen aukera. Mesedez, ez ezazu galderarik erantzun gabe utzi.

Eskerrik asko laguntzeagatik!

GALDERAK

Paziente kroniko moduan zure esperientzia oinarri harturik, erantzun mesedez hurrengo galderari egoera mota hauen maiztasuna adieraziz:

	Mai	Gainebé mai	Alguns cops	Gainebé sempre	Sempre
<p>1. Nire bizimodua errespetatzen dute Nitaz arduratzen diren profesionalak entzun egiten didate, eta nire beharrak, ohiturak eta lehentasunak aintzat hartzen dituzte zainketa-plana eta tratamendua egokitze aldera.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>2. Arreta ona eskaintzeko koordinaturik daude Osasun-zentroan eta ospitalean arreta ematen didaten profesionalak haien artean hitz egiten dute, eta elkarlanean aritzen dira nire ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzearren</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>3. Internet bidez informazioa eskuratzen laguntzen didate Nire gaixotasuna, tratamendua eta horiek nire bizitzan izan ditzaketen ondorioak hobeto ezagutzeko lagungarri izan dakizkidakeen webgune eta foroen berri ematen didate.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>4. Nire burua hobeto zaindu dezaket orain Nire profesionalen laguntzarekin nire buruarenganako konfiantza hobetu dut, eta hobeto moldatzen naiz nire burua zaintzen, osasun-arazoak kudeatzen eta autonomo izaten.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>5. Galdetu eta tratamendu-plana jarraitzen laguntzen didate Nire zainketa-plana eta tratamendua jarraitzen ditudala berrikusten dut profesionalekin, eta zalantzarik izanez gero, argitu egiten dizkidate.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>6. Bizimodu osasuntsuagoa izateko eta nire gaixotasuna hobeto kontrolatzeko helburuak finkatzen ditugu Elikadurari, ariketa fisikoari eta medikazioa behar bezala hartzeari buruzko helburuak adostu ditut nitaz arduratzen diren profesionalekin, nire gaixotasuna hobeto kontrolatzearen.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>7. Internet eta mugikorra erabiltzen ditut nire historia klinikoa kontsultatzeko Internet eta mugikorra erabiltzen ditut nire historia klinikoa, egindako frogen emaitzak eta programatutako hitzorduak kontsultatzeko, bai eta nire osasun-zerbitzuaren webguneko beste zerbitzu batzuk atzitzeko ere.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>8. Medikazioa behar bezala hartzen dudala ziurtatzen dute Zaintzen nauten profesionalak hartzen ditudan sendagai guztiak, posologia eta horien eragina berrikusten dituzte nirekin; aukera dut, halaber, ditudan zalantzak galdetzeko.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>9. Nire ongizatearen ardura hartzen dute Nitaz arduratzen diren profesionalak nire bizi-kalitateaz kezkatzen dira, eta nire ongizatearekin konprometiturik daudela uste dut.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>10. Lagungarri suerta dakizkidakeen osasun- eta gizarte-baliabideen berri ematen didate Artatzen nauten profesionalak eskura ditudan (auzoan, hirian edo herrian) osasun- eta gizarte-baliabideei buruzko informazioa ematen didate, nire osasun-arazoak hobetzeko eta nire burua hobeto zaintzeko erabilgarri izango direlakoan.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
<p>11. Beste paziente batzuekin hitz egiteko adorea ematen didate Profesionalak paziente-taldeetan parte hartzera bultzatzen naute, gure burua zaintzeari buruzko informazioa eta esperientziak partekatze eta gure osasuna hobetze aldera.</p>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

GALDERAK

Paziente kroniko moduan zure esperientzia oinarri harturik, erantzun mesedez hurrengo galderei egoera mota hauen maiztasuna adieraziz:

Inoiz
la inoiz
Batzuetan
la beti
Beti

Azken 6 hilabeteotan ospitaleratu bazaituzte, erantzun mesedez honako galdera honi:

12. Nitaz arduratzen dira ospitalean egon ostean etxera heltzen naizenean

Ospitaleraturik egon eta alta jaso ondoren, deitu egin didate edo bisitan etorri zaizkit etxera nola nengoen ikusteko eta zer zainketa behar nituen jakiteko.

Azken 6 hilabeteotan larrialdi-zerbitzuan arreta jaso baduzu, erantzun mesedez honako galdera honi:

13. Beste larrialdiren bat ez izateko aholku ematen didate

Larrialdi-zerbitzuan egon ondoren, zaintzen nauten profesionalak badakite zer gertatu zaidan eta halakorik berriz ez gertatzeko aholku ematen didate.

Azken 6 hilabeteotan osasun-arreta jaso baduzu etxean, erantzun mesedez honako galdera honi:

14. Arreta egokia ematen didate etxean

Etxera etortzen zaizkidan profesionalak osasun-zentroko zein ospitaleko profesionalekin koordinatuta saiatzen dira nire osasun-arazoei aurre egiten.

Azken 6 hilabeteotan gizarte-zerbitzuen arreta jaso baduzu, erantzun mesedez honako galdera honi:

15. Gizarte-zerbitzuak osasun-zerbitzuekin koordinatzen dira behar bezalako arreta emateko

Gizarte-zerbitzuetan artatzen nauten profesionalak osasun-profesionalekin hitz egiten dute, eta elkarlanean aritzen dira behar bezalako arreta emateko.

Sexe:

Edat:

Nombre de médicaments que està prenent actualment: